

GIZON

EKIMENA
2021eko
MEMORIA

DUZ



1 HITZAURREA	03
2 2021EAN EGINDAKO JARDUERAK	04
2.1 WEBGUNEA	04
2.1.1 Elkarriketak	04
2.1.2 Sare sozialak	05
2.2 PRESTAKUNTZA ETA SENTSIBILIZAZIO PROGRAMA	05
2.2.1 Aurrez aurreko ikastaroak	06
2.2.2 <i>Online</i> ikastaroak	15
2.2.2.1 <i>Online</i> sentsibilizazio-ikastaroa, 10 ordu	15
2.2.2.2 <i>Online</i> prestakuntza, 25 ordu	16
2.3 “GAZTEAK BERDINTASUNEAN 2.0” PROIEKTUA	18
2.4 GIZONAK EREMU POLITIKOAN	22
2.5 “GIZONOK ESAN ETA EGIN” KANPAINA	24
2.6 SENTSIBILIZAZIO- ETA PRESTAKUNTZA-PROGRAMA	25
2.7 AHOLKULARITZA ETA LANKIDETZAK	25
3 PROGRAMAREN HELBURUEN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA	26

1.0

Hitzaurrea

Gizonduz Eusko Jaurlaritzaren ekimen aitzindari bat da, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak bultzatua, gizonak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaz kontzientziatu daitezen eta horretan inplikatu daitezen eta parte har dezaten bultzatzeko. Hori guztia ikuspuntu feministan, giza eskubideen ikuspegian eta dibertsitatearen integrazioan oinarrituta.

Helburuak **Gizonduz ekimena sortzen duen agirian** zehazten dira, eta honako hauek dira:

- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde sentsibilizatuta dauden gizonen kopurua handitzea.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren esparruan trebakuntza duten gizonen kopurua handitzea.
- Gizonek etxeko lanetan eta pertsonen zaintzan duten erantzunkidetasuna areagotzea.

Gizonduz ekimenaren barruan egindako jarduerak dokumentu hauetan daude jasota: **2007-2010, 2011, 2012, 2013, 2014, 2015, 2016, 2017, 2018, 2019 y 2020.**

COVID-19aren ondoriozko larrialdi-egoerak nabarmen eragindako urtea izan da 2021 ere. Urte atipikoa izan da osasun publikoa babesteko hartutako neurriengatik. Aurten, areagotu egin dira *webinar* erako prestakuntza-ekintzak, baita *online* prestakuntza eta aurrez aurreko prestakuntza uztartzen dituzten ikastaro mistoak ere.



2.0

2021ean egindako jarduerak

2.1 WEBGUNEA

2021ean, Gizonduz ekimenari buruzko atala administratzen jarraitu da Emakunderen webgunean. Apartatu honetan, ekimenari buruzko informazio asko agertzen da euskarri ezberdinetan, eta atal hauetan banatuta: Prestakuntza, elkarrizketak, kanpainak, gizon taldeak, bloga, materialak, Gazteak Berdintasunean 2.0, jardunaldiak eta abar.

2021ean, Gizonduz ekimenaren hasierako webgunean 4.030 bisita izan dira guztira.

2.1.1 ELKARRIZKETAK

Atal honetan, honako elkarrizketa hauek egin dira:

- **Ariel Sánchez.** MasCS Institutuko (Masculinidades y Cambio Social) sustapen-taldeko kidea, Argentina.
- **Lionel Delgado.** Filosofoa eta soziologoa. Bartzelonako Unibertsitatean ikertzen aritzen da hirigintza, feminismo eta maskulinitate-ereduen inguruan.

- **Anastasia Téllez Infantes.** ECULGE Ikerketa-taldeko maskulinitateen behatokiko zuzendaria, Elxeko Miguel Hernández Unibertsitatean. Gizarte Antropologian doktorea eta Gizarte eta Kultura Antropologiako irakasle titularra UMH unibertsitateko Giza eta Gizarte Zientzien Sailean.
- **Hilario Sáez.** *Soziologoa. Iniciativa Social* fundazioko eta *Hombres por la Igualdad* foroko kidea. Sevillan egindako #21oct21 ekimenaren antolatzaileetako bat da.
- **Roy Galán.** Idazlea. Feminismoari, maskulinitateei eta matxismorik gabeko jendartearen eraikuntzan gizonen duten rolari buruz hausnartzen du bere testuetan.
- **Ibai Fresnedo.** Sexu-hezitzailea, berdintasun-eragilea eta Hiruki Larroxa kolektiboko kidea.

2.1.2 SARE SOZIALAK

Gizonduz Facebook-en dago 2009. urteaz geroztik. 2021ean, 5.224 jarraitzaile izan zituen batez beste, % 49,9 emakumeak eta % 59,1 gizonak. 2020an, 162 argitalpen egin ziren.

Gizonduz ekimenak 2.117 jarraitzaile ditu Twitter sareko kontuan. 2011z geroztik 6.870 txio idatzi dira guztira, horietako 297 2021. urtean.


Halaber, Gizonduz ekimenak kontu bat du YouTube-n: berdintasunarekin eta maskulinitateekin lotutako hitzaldien, tailerren eta iragarkien bideoak eta ikus-entzunezko materialak ikusi daitezke. YouTube-ko Gizonduz orrialdean 46 bideo daude, eta 2021. urtean 1.395 aldiz ikusi dira bideo horiek; kontua sortu zenez geroztik (2009an), 23.638 aldiz ikusi dira bideoak.

2.2 PRESTAKUNTZA ETA SENTSIBILIZAZIO PROGRAMA

2009ko martxoan, Gizonduz ekimenaren Sentsibilizazio- eta prestakuntza-programa abian jarri zenetik 2021eko abendura arte, 20.336 pertsonak¹ parte hartu dute aurrez aurreko nahiz online ikastaroetan; horietatik 11.380 gizonak ziren (% 56), 8.740 emakumeak (% 43), 112 ez-bitar gisa identifikatutako pertsonak (% 0,5), eta galdera horri ez zioten erantzun 104 pertsonak (% 0,5)².

¹ Datu horietan ez dago jasota Gazteak Berdintasunean 2.0 programako ikasleen kopurua, zeina aurrerago zehaztuta baitago.

² Bi neurketa-kategoria berri txertatu dira 2018az geroztik egindako parte-hartzaileen genero-identitatearen auto-identifikazioari dagokionez: Ez-bitarra eta Ez du erantzun



- Aurrez aurreko ikastaroak
- 60 orduko *online* ikastaroa
- 8-10 orduko *online* ikastaroa
- Neurrira egindako *online* ikastaroa
- 25 orduko *online* ikastaroa

Ikastaro mota	Emakumeak	Gizonak	Ez-bitarra	Ez du erantzun	Guztira ³
Aurrez aurreko ikastaroak	5.914	9.306	89	93	15.402
60 orduko <i>online</i> ikastaroa	602	393	0	0	995
8-10 orduko <i>online</i> ikastaroa	702	560	0	0	1.262
Neurrira egindako <i>online</i> ikastaroa	295	584	21	11	911
25 orduko <i>online</i> ikastaroa	1.227	537	2	0	1.766
GUZTIRA	8.740	11.380	112	104	20.336

2.2.1 AURREZ AURREKO IKASTAROAK


2021ean, *online* egindako aurrez aurreko 22 ikastaro eman dira, *webinar* formatuan. Emandako orduak eta parte hartu duten ikasleak aurrez aurreko ikastaroen apartatu honetan sartu ditugu, zeren eta, *online* ikastaroetan ez bezala, ikasleek beren etxe edo enpresatik zuzenean parte hartu ahal izan dute ikastaroaren garapenean.

2009tik 2021era, biak barne, aurrez aurreko 806 ikastaro egin dira (2021ean, 102). Guztira, 15.402 pertsonak⁴ parte hartu dute, horietatik 9.306 gizonak ziren (% 60,23), 5.914 emakumeak (% 38,64), 89 ez-bitar gisa identifikatutako pertsonak (% 0,48), eta galdera honi ez zioten beste erantzun 93 pertsonak (% 0,59).

³ Grafiko honetan bi neurketa-kategoria berri txertatu dira, 2018an egindako parte-hartzaileen genero-identitatearen auto-identifikazioari dagokionez: Ez-bitarra (52 pertsona, 2018an) eta Ez du erantzun (18 pertsona, 2018an).

⁴ Datu horietan ez dago jasota Gazteak Berdintasunean 2.0 programako ikasleen kopurua, zeina aurrerago zehaztuta baitago.

Aurrez aurreko ikastaroetan izan den parte-hartzearen bilakaera⁵




Ikastaro horietako ikasleak, sexuaren arabera bereizita, era honetara daude banatuta

Urtea	Emakumeak	Gizonak	Ez-bitarra	Ez du erantzun	Guztira
2009	241	512	-	-	753
2010	900	895	-	-	1.795
2011	638	821	-	-	1.459
2012	677	768	-	-	1.445
2013	389	628	-	-	1.017
2014	375	662	-	-	1.037
2015	354	467	-	-	821
2016	382	630	-	-	1.012
2017	362	464	-	-	826
2018	263	617	29	41	950
2019	462	1.205	32	34	1.733
2020	292	637	6	7	942
2021	579	1.000	22	11	1.612
GUZTIRA	5.914	9.306	89	93	15.402

⁵ Grafiko honetan bi neurketa-kategoria berri txertatu dira, 2018an egindako parte-hartzaileen genero-identitatearen auto-identifikazioari dagokionez: Ez-bitarra (52 pertsona, 2018an) eta Ez du erantzun (18 pertsona, 2018an).


Ikasleek iraupen tipologia desberdinetako ikastaroetan parte hartu dute 2009tik 2021era, biak barne. Tipologia horiek honela banatzen dira



Ikasleen % 25,6k 3 ordura arteko ikastaroetan parte hartu dute; ikasleen % 46,7k 4 ordutik 9 ordura bitarteko ikastaroetan; eta, azkenik, ikasleen % 27,5ek, 10 ordutik gorakoetan. Joera-aldaketa antzeman da; izan ere, 4 ordutik 9 ordura bitarteko ikastaroak ugartu egin dira, eta 10 ordu edo gehiagoko ikastaroak murriztu. Horren arrazoi nagusia izan da programa esanguratsuak aurrez aurreko formatutik formatu mistora igaro direla (*online* eta aurrez aurrekoa uztartuta). Eusko Jaur-laritzako Segurtasun Sailaren mendeko Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiarena izan da kasu horietako bat. Aurreko urteetako lankidetzeta-programarekin jarraituz, COVID-19aren pandemiak eraginda ezarri diren arauen ondorioz, 2021. urtean prestakuntza mistoa izan da gehienbat: 10 ordu *online* prestakuntza, Moodle plataforman, eta 5 ordu aurrez aurreko prestakuntzan. Horrela, pertsona bakoitzeko dedikazio osoa bost ordu handitu da iazko datuekin alderatuta. XXIX. promozioiko 39 talderi eman zaizkie ikastaroak; guztira, ikasle bakoitzak aurrez aurreko 195 ordu eta 10 *online* prestakuntza-ordu egin ditu.

2021eko ikastaroak	Orduak	Orduen %	Ikasleak, guztira	Ikasleen %	Gizonak	Emakumeak	Ez du erantzun	Ez-bitarra
16 ikastaro 3 ordura arte	29,6	% 6,3	252	15,6%	157	95	0	0
82 ikastaro 4 - 9 ordu	388	% 83,2	1.327	82,4%	816	478	11	22
4 ikastaro 10 ordu edo gehiagokoak	48,4	% 10,5	33	2%	27	6		
GUZTIRA, 102 ikastaro	466	100%	1.612	100%	1.000	579	11	22

Aurrez aurreko ikastaroak 2021



2021ean honako hau izan zen aurrez aurreko ikastaroen banaketa, erakunde eskatzaileen arabera:

Enprekin elkarlanean antolatutako aurrez aurreko ikastaroak

Erakundea	Edukiak	Norentzat diren	Ikastaro kopurua	Ikastaro bakoitzaren iraupena ordutan	Ordu kopurua guztira
AEK	Maskulinitateak, berdintasuna eta balioak aldatzea	Bertako langileak	4	4	16
AKHONMEDIA	Maskulinitateak eta berdintasuna	Bertako langileak	1	4	4
AZTI	Maskulinitateak eta berdintasuna	Bertako langileak	1	2	2
CEBEK	Gizonak, berdintasuna eta lan-mundua, eta lan-arriskuen prebentzioa	Bazkideak	6	4	26
CMF	Maskulinitateak, sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena	Bertako langileak	1	4	4
ATEFRISA	Maskulinitateak, sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena	Bertako langileak	1	3	3
INGARTEK	Maskulinitateak eta berdintasuna	Bertako langileak	1	4	4
LOIRE-GESTAMP	Gizonak, berdintasuna eta lan-mundua, eta sexu-jazarpenaren zein sexuan oinarritutako jazarpenaren prebentzioa.	Bertako langileak	2	6	12
ORMAZABAL	Gizonak, berdintasuna eta lan-mundua	Bertako langileak	2	4	8

Erakunde publikoekin elkarlanean egindako aurrez aurreko ikastaroak

Erakundea	Edukiak	Norentzat diren	Ikastaro kopurua	Ikastaro bakoitzaren iraupena ordutan	Ordu kopurua guztira
Arabako Mendialdeko Kuadrilla	Gizon politikarien aurkezpena	Gizon politikariak Kanpezu - Arabako Mendialdeko Kuadrilla	1	2	2
Aiarako Kuadrilla	Gizon politikarien aurkezpena	Gizon politikariak Kanpezu - Arabako Mendialdeko Kuadrilla	2	2	4
Donostiako Udala. Mugikortasun Saila	Maskulinitateak, berdintasuna, jokabide arriskutsuak eta indarkeria matxista	Bertako langileak	1	16	16
Donostiako Udala. Mugikortasun saila	Maskulinitateak, berdintasuna, jokabide arriskutsuak eta indarkeria matxista	Bertako langileak	1	10,5	10,5
Arabako Foru Aldundia. Mugikortasun saila	Maskulinitateak eta berdintasuna	Bertako langileak	8	4	32
Arkauteko Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia	Maskulinitateak eta berdintasuna	XIX. promozioiko ikasleak	39	5	195
EUDEL - Eusko Jaurlaritza	Elkarriketak...	Kargu publikoak dituzten gizonak	2	2	4
Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza-Ikuskapeneko Atala	Maskulinitateak eta berdintasuna	Bertako langileak	1	2	2
EUDEL - Eusko Jaurlaritza	Maskulinitateak, berdintasun politikak eta lidergoa.	Kargu publikoak dituzten gizonak	2	2	4
Osakidetza	Maskulinitateak eta berdintasuna	Bertako langileak	1	6	6
Osakidetza	Maskulinitatea eta balio-aldaketa. Aitatasun arduratsuak eta berdinzaleak	Bertako langileak	2	3	6
Osakidetza	Maskulinitatea eta indarkeria matxista	Bertako langileak	2	6	12
Eusko Legebiltzarra	Gizonak, maskulinitateak eta berdintasuna	Bertako langileak	1	3,33	10

Elkartekin eta beste hezkuntza-erakunde batzuekin elkarlanean antolatutako aurrez aurreko ikastaroak

Erakundea	Edukiak	Norentzat diren	Ikastaro kopurua	Ikastaro bakoitzaren iraupena ordutan	Ordu kopurua guztira
Bizkaiko Caritas	Maskulinitateak eta esku-hartze soziala gizonekin	Bertako langileak	2	1,5	3
Bizkaiko Caritas	Maskulinitateak eta esku-hartze soziala gizonekin	Bertako langileak	2	4	8
Gipuzkoako Caritas	Maskulinitateak eta esku-hartze soziala gizonekin	Bertako langileak	1	12	12
Gipuzkoako Caritas	Maskulinitateak, sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena.	Bertako langileak	2	6	12
Mugarik Gabeko Ekonomialeariak	Maskulinitateak eta berdintasuna	Bertako langileak	1	2	2
Euskaltzaleen Topagunea	Maskulinitateak eta berdintasuna	Bertako langileak	1	4	4
Cristina Enea Fundazioa	Maskulinitateak eta berdintasuna	Bertako langileak	1	2	2
Ikastolen Elkartea	Maskulinitateak eta berdintasuna	Bertako langileak	1	4	4
Iresgi. Martuteneko Espetxea	Maskulinitateak eta berdintasuna	Presoak	1	1,5	1,5
Sirimiri	Maskulinitateak eta berdintasuna	Bertako langileak	2	4	8
UPV/EHU. Ingeniaritza Eskola (Automobilgintza)	Maskulinitateak eta berdintasuna	Ikasleak	2	4	8

AURREZ AURREKO IKASTAROEN BALORAZIOAK:

Jarraian, aurrez aurreko ikastaroetako parte-hartzaileek emandako balorazioen batezbestekoak ageri dira, 6 puntuko baremoa oinarri hartuta (1 da puntuaziorik txikiena, eta 6, handiena).

1.089 balorazio jaso dira: 348, emakumeek egindakoak dira; 698, gizonek egindakoak; beste 27 ez-bitarra epigrafean jaso dira, eta 16 pertsonak ez diote galderari erantzun. Kontuan izan behar da ikastaroa egiten duten elkarteek eta erakundeek jasotako ebaluazio-galdetegiaren zati bat formatu propiokoak direla; hori dela eta, zaila da bateratzea. Horregatik, ez daude hurrengo tauletan jasota.


Jasotako ebaluazio-galdetegen kopurua, sexuaren eta adinaren arabera

Ebaluazioak sexuaren eta adinaren arabera	16 - 24 urte	25 - 30 urte	31 - 54 urte	55 urte eta gehiago	EDE	Guztira
Emakumeak	28	116	193	9	2	348
Gizonak	120	257	291	28	2	698
Ez-bitarra	9	8	10			27
Ez du erantzun	1	4	9	1	1	16
GUZTIRA	158	385	403	38	5	1.089

Jasotako balorazioak (Otik 6ra)

	emakumezkoak	gizonezkoak	ez-bitarra	ez daki/ez du erantzun	orokorra
Ikastaroaren balorazio orokorra	5,4	5,1	5	5,1	5,2
Gaiaz lehendik zeuzkan ezagutzak	4,0	3,7	3,8	3,7	3,8
Ezagutzak areagotzea	5	4,9	3,5	5	4,9
Sentsibilizazioa areagotzea	5	4,9	3	4,8	4,9
Edukia	5,2	5	4,6	4,9	5
Hizlaria	5,6	5,4	5,4	5,3	5,5
Dinamizazioa	5,2	5	4,7	4,9	5,1
Taldearen parte hartzea	4,9	4,7	4,8	4,4	4,8
Antolaketa	5,1	4,9	4,7	4,9	5
Eremua	5	4,8	4,6	4,7	4,85
Erabilitako materialak	4,9	4,6	4,2	4,7	4,7
Bitzita pertsonalerako baliagarritasuna (%)	99%	96%	96%	98%	97,25%
Bitzita profesionalerako baliagarritasuna (%)	97%	96%	96%	94%	95,75%

Batez besteko balorazioak 6tik (sexuaren arabera banatu gabe)




Aurreko urteetan bezala, ikasleek modu positiboan baloratu dituzte erabilitako materialak eta erabilitako metodologia parte-hartzailea. 4tik beherako balio bakarra parte-hartzaileek prestakuntza-saioaren aurretik zuten ezagutzaren balorazioari dagokio.

Ikastaroen gaineko balorazioak aurreko urteetako antzekoak izan dira. Oro har, esan daiteke Gizonduz ekimenaren barruan eskaini diren aurretik aurreko ikastaroek bete egin dituztela ikasleen espektatibak, baita programarenak ere.

Ebaluazio-galdetegiko alderdien gainean egindako balorazioan, ez da desberdintasun nabarmenik ikusten, sexuaren edo adinaren arabera.

Ikastaroak antolatzeaz arduratu diren erakundeen batez besteko balorazioak (0 eta 6 bitartean)



Grafikoan ikus daitekeen moduan, ikastaroak antolatzeaz arduratu diren erakundeen balorazioak oso altuak izan dira.

Ondoen baloratutako alderdiak honako hauek izan dira: "trebatzailearen profesionaltasuna" (5,75), "Gizonduz ekimenarekiko komunikazioa" (5,9), "bizkortasuna kudeaketan" (5,7) eta "egutegi-erraztasuna" (5,7).

Ikasleen balorazioetan nahiz erakunde antolatzaileen balorazioetan honako hobekuntza hauek proposatu dira: prestakuntzak luzeagoak izatea, jorratutako gaietan sakontzea eta ikastaroek lernerako erremintak eskaintzea.

2.2.2 ONLINE IKASTAROAK


2.2.2.1 ONLINE SENTSIBILIZAZIO-IKASTAROA, 10 ORDU

Ikastaro honetan, alderdi hauek landuko dira besteak beste:

- Genero-desberdintasunen jatorria.
- Zer paper jokatzten duten sozializazioan sexuaren araberako rolek eta estereotipoek.
- Maskulinitate-ereduak berrikustea.
- Zer rol betetzen duen gizonen bizitzan beste pertsonen eta norberaren zaintzak.
- Gizonen inplikazioa etxeko lanetan eta beste pertsonen zaintzan.
- Sozializazio sexistak gizonei ere eragiten dizkien genero-arazoak.
- Zer paper jokatzten duen indarkeriaren legitimazioak identitate maskulinoen eraikuntzan.

Online ikastaroa 2009. urtean hasi zen ematen. Ordutik 2021era, 1.262 lagunek ongi bukatu zuten ikastaroa: 695 emakumek eta 566 gizonak.


Ikastaroa ondo bukatu zuten pertsonak



2021. urtean, guztira, 218 lagunek ondo bukatu zuten ikastaroa: 139 emakumek eta 79 gizonak. Ikastaroa egiten duten pertsonen kopuruak gora egin du, aurreko urtean izan ziren 126 lagunekin alderatuta. Ikastaroa egin duten gizonen proportzioa aurreko urtekoa baino txikiagoa da: aurten % 36,2 eta iaz % 52,3.

2021ean, 79 ebaluazio-galdetegi jaso ziren.

2021: Ikastaroaren gaineko balorazioa (6 puntu gehienez)



	Guztira	Emakumeak	Gizonak
Baliagarria iruditzen zaizu zure bizitza pertsonalerako? BAI	76	% 98	% 100
Baliagarria iruditzen zaizu zure bizitza profesionalerako? BAI	76	% 98	% 100

Ikastaroaren (5,14) eta haren edukien (5,12) balorazioa oso positiboa izan da.

Azpiraratzeko modukoa da, gainera, ikastaroa egin duten pertsonen % 99 baino gehiagoren us-tez, batez beste, ikastaroa baliagarria izan dela bizitza pertsonalerako eta profesionalerako.

2.2.2.2 ONLINE PRESTAKUNTZA, 25 ORDU

"Maskulinitateak. Gizonak eta Berdintasuna: erronkak eta erresistentziak" izeneko ikastaroaren bitartez, ikasleek gaitasun teorikoak eta praktikoak gara ditzatela lortu nahi da, gure jendartearen maskulinitatearen erakuntza aztertzeko. Hori guztia berdintasunaren ikuspegitik egin nahi da eta, horretarako, errealitatea genero-ikuspegiarekin aztertzeko ezagutzak eta errealitate hori ulertzea ahalbidetzen duten tresna metodologikoak eskuratu behar dira. Gure gizarteetan dauden maskulinitatearen adierazpen anitzak jorratzen dira, baita horrek emakumeei eta gizonei eragi-

ten dizkien ondorioak ere. Aldi berean, emakumeen eta gizonen berdintasunean egin diren aurrerapenak, dauden erresistentzia nagusiak eta agertu diren diskurtso sexista berriak aztertzen dira, indarkeria matxistari buruzko azterketan sakonduz, eta biztanle gazteenengan, kausetan eta adierazpen ohikoenetan zentratuz.


Aurten, *online* ikastaro hau UPV-EHU Euskal Herriko Unibertsitatearekin eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearekin (IVAP) lankidetzan egin da. Emakundek ere 4 ikastaro antolatu ditu.

2021: Maskulinitatei buruzko 25 orduko online ikastaroa egin zuten pertsonak

Erakunde antolatzailea	Ikastaroa	Emakumeak	Gizonak	Ikastaroa gainditu duten ikasleak GUZTIRA
UPV-EHU	Maskulinitateak. Gizonak eta berdintasuna: erronkak eta erresistentziak. (1. edizioa)	21	11	32
UPV-EHU	Maskulinitateak. Gizonak eta berdintasuna. Erronkak eta erresistentziak. (1. edizioa)	51	19	70
UPV-EHU	Maskulinitateak. Gizonak eta berdintasuna: erronkak eta erresistentziak. (2. edizioa)	16	7	23
UPV-EHU	Maskulinitateak. Gizonak eta berdintasuna. Erronkak eta erresistentziak. (2. edizioa)	34	13	47
EMAKUNDE	Maskulinitateak. Gizonak eta berdintasuna. Erronkak eta erresistentziak.	40	36	76
EMAKUNDE	Maskulinitateak. Gizonak eta berdintasuna: erronkak eta erresistentziak. (2. edizioa)		11	16
EMAKUNDE	Maskulinitateak. Gizonak eta berdintasuna. Erronkak eta erresistentziak.	15	37	53
EMAKUNDE	Maskulinitateak. Gizonak eta berdintasuna: erronkak eta erresistentziak. (2. edizioa)	3	3	6
IVAP	Maskulinitateak. Gizonak eta berdintasuna. Erronkak eta erresistentziak.	24	22	46
IVAP	Maskulinitateak. Gizonak eta berdintasuna: erronkak eta erresistentziak.	3	5	8
GUZTIZKOAK		207	164	377

2021ean, *online* ikastaroaren 118 ebaluazio-galdetegi jaso ziren. 62 emakumek eta 16 gizonak egin zuten galdetegia, baita identitatearen galderari erantzun ez zioten 40 pertsonak ere.

2021: Batez besteko balorazioak (10etik)



	Guztira
Baliagarria iruditzen zaizu zure bizitza pertsonalerako? Bai	% 97
Baliagarria iruditzen zaizu zure bizitza profesionalerako? Bai	% 93

Ikastaroaren balorazio globalaren batezbestekoa (10etik 8,50) positiboa da. Material teorikoei ere balorazio ona eman zaie (10etik 8,63).

Azpimarratu beharra dago, ikastaroari buruzko gogobetetze-inkesta egin duten partaideen % 97ren arabera, ikastaroa baliagarria izan dela euren bizitza pertsonalerako; eta % 93ren iritziz, baliagarria izan dela ikastaroa euren bizitza profesionalerako.

2.3 “GAZTEAK BERDINTASUNEAN 2.0” PROIEKTUA

"Gazteak Berdintasunean 2.0" proiektuaren bidez, nerabeen eta gazteen kontzientziak eta inplikazioa bultzatu nahi da, eta, bereziki, mutilena, emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde

eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontra egin dezaten; horretarako, hezkuntza-tresna berri-tzaileak baliatuko dira, teknologia berrietan oinarrituta.

Atal hauek ditu proiektuak:


- *Online* abentura grafiko bat (bideojoko bat): erabiltzaileei egoera batzuk adieraziko zaizkie, eta proba batzuk egin eta ebatzi beharko dituzte; hau da, egoera sexistak, homofoboak, indarkeriazkoak, etab., izango dituzte, eta erabaki bat hartu beharko dute zenbait aukeraren artean.
- Unitate eta fitxa didaktikoak, irakasleei zein ikasleei zuzenduta.

2016tik 2021era bitartean, 37 ikastetxetan egin dira ikastaroak. Guztira, 2.838 ikaslek parte hartu dute: 1.047 neska, 1.786 mutil eta ez-bitar gisa identifikatutako 5 pertsona. 2021ean, irakasleei zuzendutako ikastaro bat egin da, eta bertan parte hartu dute 18 emakumek eta 7 gizonak.

2021. urtean zehar, prestakuntza eman da 10 ikastetxetan: Minas BHI (Barakaldo), La Salle (Bilbo), Don Bosco (Errenteria), Berrio-Otxoa (Bilbo), Ernio-bea Bigarren Hezkuntzako Institutua (Villabona), Armeria Eskola (Eibar), IMH Fabrikazioaren Zentro Aurreratua (Elgoibar), CIFP Tartanga LHII (Erandio); IES Muskiz BHI (Muskiz), CF Somorrostro (Muskiz). Ikasleekin egindako ikastaroetan 660 gaztek parte hartu dute guztira; horietatik 151 neska izan dira, 507 mutilak eta 2 ez-bitar gisa identifikatutako pertsonak. 169 prestakuntza-ordu eman dira guztira ikasleekin, 21 taldetara iritsi da, eta horietako gehienetan 4 ordu eman dira talde bakoitzeko. Irakasleekin 4 orduko ikastaroa egin da.




Prestakuntzak egin diren ikastetxeen balorazioek honako emaitza hauek eman dituzte (1etik 6ra bitartean):




GAZTEAK BERDINTASUNEAN 2.0 bideojokoaren inguruan ikasleek egindako balorazioei dagokienez, guztira 487 balorazio jaso dira: mutilen 350 balorazio jaso dira, nesken 132, ez-bitar gisa identifikatutako pertsonen 2, eta galdera horri erantzun ez dioten pertsonen beste 2.

EBALUAZIOEN EMAITZAK:




Uste dut bideojokoa dibertigarria dela

- Oso ados
- Ados
- Desados
- Oso desados
- Erantzunik ez




Esaten duenari arreta handiagoa jarri diot bideojoko bat delako

- Oso ados
- Ados
- Desados
- Oso desados
- Erantzunik ez




Kosta egin zait ulertzea nola jokutzen zen

- Oso ados
- Ados
- Desados
- Oso desados
- Erantzunik ez




Horrelako bideojokoak gehiago erabili beharko lituzkete beste gai batzuetarako

- Oso ados
- Ados
- Desados
- Oso desados
- Erantzunik ez



Dibertigarriagoa da horrela ikatea

- Oso ados
- Ados
- Desados
- Oso desados
- Erantzunik ez



Arazorik gabe ulertu dut zer transmititu nahi ziguten bideojokoarekin

- Oso ados
- Ados
- Desados
- Oso desados
- Erantzunik ez

2.4 GIZONAK EREMU POLITIKOAN

2017an, kargu politikoak dituzten gizonei zuzendutako ekimena jarri zen martxan, gizon horiek beren eragin-eremuan berdintasuna sustatzea lortzeko, bereziki, beste gizon batzuek kausa horrekin duten konpromiso pertsonala eta kolektiboa sustatzeko.

Horretarako, bi gizonezko politikarien talde sortu ziren, bata Eusko Jaurlaritzaren barruan eta bestea udal-mailan, EUDELein lankidetzan. Prestakuntza, gogoeta eta elkartruckerako espazioak ziren, eta politikan lan egiten duten gizonen partaidetza eta inplikazioa indartzea zuten helburu, gizon horiek erreferenteak baitira eta erabakiak hartzeko guneetan parte hartzen baitute.

Gizon politikariekiko egindako lan hori jardunbide egoki gisa aurkeztu zen Europako Udalerrien eta Eskualdeen Biltzarrak (CMRE) 2019ko azaroaren 19an Bruselan antolatutako #InvolveMen nazioarteko mintegian.



Bideo honetan laburbilduta daude esperientziaren ideiak eta helburuak.

Gizon politikariak berdintasunaren alde

Ekimenari jarraipena emateko, 2020. urtearen hasieran bigarren fasea hasi zen, alde batetik, kargu publikoak betetzen dituzten gizonen zuzendutako berdintasunerako gida-zirriborro batean oinarrituta. Gida hori osatzeko, 5 lan-saio egin ziren (2 Jaurlaritzako politikariekiko, 2 tokiko politikariekiko eta saio bat elkarrekin), eta, guztira, 25 gizon inguruk parte hartu zuten.

2021ari dagokionez, bi prestakuntza-ildo jarri dira abian, EAEko erakunde publikoetan postu politikoak betetzen dituzten gizon guztientzat irekiak. Alde batetik, hitzaldiak egin ziren berdintasunean adituak diren pertsonekin: lehena maiatzaren 18an, Miguel Lorenterekin, non kargu publikoak dituzten gizonen berdintasunaren sustapenean duten zeregina aztertu baitzen ("*El papel de los hombres con cargos públicos en la promoción de la igualdad*"); eta bigarrena, azaroaren 24an, Pilar Kaltzadarekin, indarkeria matxistaren aurrean kargu politikoak dituzten gizonen adierazpen, diskurtso eta ekintzei buruz ("*Declaraciones, discursos y acciones de los hombres con cargos políticos ante la violencia machista*").

Halaber, 2021ean "prestakuntza-topaketak" deiturikoak egin dira, hau da, *online* aldizkako saioak, bereziki gizon politikarientzat diseinatutako prestakuntza-pilula formatuan. Lehenengo prestakuntza-topaketa ekainaren 10ean izan zen, eta bertan jorratu zen "gizonak, berdintasuna eta berdintasun-politikak" gaia ("*Los hombres, la igualdad y las políticas de igualdad*"). Bigarrean, urriaren 14an, gizonen identitatea, boterea, lidergo-moduak eta gizonen berdintasunean duten zeregina jorratu ziren ("*Identidad masculina, poder, formas de liderazgo y el papel los hombres en la igualdad*").

Azpimarratzekoa da arlo horretan egindako lana jardunbide egokitzat jo dela Promundok Save the Children, Oxfam, MenEngage Alliance erakundeekin eta Nazio Batuen Fundazioaren laguntzarekin egindako *State of the World's fathers 2021* txostenean.

2.5 “GIZONOK ESAN ETA EGIN” KANPAINA

Kanpaina honen bidez, Emakundek jarraipena eman nahi izan dio 10 urtetan baino gehiagotan zehar Gizonduz bidez egin den lanari, hala, EAEko gizonok aurrerapauso bat gehiago eman dezaten eta beren egunerokotasunean ekintza jakin batzuk egiteko konpromisoa har dezaten berdintasunaren alde, hala nola erantzukidetasunaren esparruan, zaintzan, indarkeria matxista desagerarazteko orduan, berdintasun-ideiak hedatzean edo mezu eta jarrera sexistak salatzeke orduan.



Horretarako, aplikazio informatiko bat jarri da horien eskura eta, urrats gutxi batzuetan, gizonak test bat egin dezakete beren sexismoa autoebaluatzeko; era berean, zenbait konpromiso aukera ditzakete, eta horiek praktikan jartzeko hainbat baliabide eta jarraipen-sistema bat eskaintzen ditu aplikazioak berak.

Gizonak berdintasunaren alde duten inplikazioa ikusgai egiteko, interesa duten gizonak beren konpromisoa publiko egiteko aukera ematen du aplikazioak. 2021era arte, 251 gizon sartu dira aplikazioan eta konpromiso pertsonalak hartu dituzte beren gain.



Bideo honek esperientziaren ideiak eta helburuak laburbiltzen ditu.

“Gizonok esan eta egin” kanpaina

2.6 SENTSIBILIZAZIO- ETA PRESTAKUNTZA-PROGRAMA

SENTSIBILIZAZIO- ETA PRESTAKUNTZA-JARDUERETAKO PARTE-HARTZEA

Gizonduz ekimena ezagutzera emateko, zenbait komunikabidetan agertu gara, eta beste erakunde batzuek antolatutako sentsibilizazio- eta prestakuntza-jarduera ugaritan parte hartu dugu. Hauetan, adibidez:

- Martxoaren 16an hitzaldi bat maskulinitateei eta politika publikoei buruzko mahai-inguruan, Gizarte Politikaren Espainiako Sarearen VIII. Biltzarrean, Bilbon.
- Apirilaren 29an, Txileko Familien Fundazioak antolatutako "Gizonak eta genero-berdintasuna: esperientziak eta erronkak" ("*Hombres e igualdad de género: experiencias y desafíos*") online mahai-ingurua.
- Urriaren 7an, maskulinitateetan egin beharreko lanari lotutako politika publikoei buruzko mahai-ingurua, Bartzelonako Udalaren *Centre de masculinitats Plural* zentroaren inaugurazioan.
- Urriaren 22an, Sevillan, gizonen zuzendutako berdintasun-politikei buruzko mahai-ingurua, *Hacia una Agenda Feminista sobre Hombres y Masculinidades* izeneko Europako topaketan.
- Ekainaren 1ean eta abenduaren 3an bi lan-jardunaldi antolatu ziren Europako *Men in Care* proiektuaren esparruan. Bertan aztertu zen zer rol duten enpresek kontziliario erantzukidearen sustapenean eta zer-nolako inplikazioa duten gizonen zaintzan, eta arlo horretako funtsezko alderdiak eta jardunbide egokiak ezagutzera eman ziren.
- Maskulinitate, genero eta berdintasunaren arloko unibertsitate-espezialistaren graduondoko titulu propioko irakaskuntzan jardun da, Elxeke Miguel Hernández Unibertsitatean.
- Euskal Herriko Unibertsitateak eta Madrilgo Unibertsitate Konplutentseak elkarlanean garatu duten Generoari, maskulinitateei eta gizarte-ekintzari buruzko unibertsitatearteko espezializazio-tituluaren irakaskuntzan jardun da.

2.7 AHOLKULARITZA ETA LANKIDETZAK

Azkenik, 2021ean, kontsulta guztiei erantzun zaie, aurrez aurre, posta elektronikoz nahiz telefonoz, bai Gizonduz ekimenari buruz, bai gizonekin, berdintasunarekin eta maskulinitateekin lotutako beste gai batzuei buruz.

Lankidetzari dagokienez, bilera bat egin da Andaluziako Emakumearen Institutuarekin, maskulinitateen eta berdintasunaren arloko ezagutzak eta esperientziak partekatzeko.

Hainbat bilera egin dira *online* Montevideoko Intendentziaren Genero-berdintasunerako Aholkularitzako Transbertsalitate eta Jabekuntza Arloarekin, eta 2019an hasitako lankidetzari jarraipena emanda. Bilera horien emaitza gisa, Gizonduz programaren *online* prestakuntzarako sarbidea erraztu zizaion eremu hartako pertsona talde bati.

Horrez gain, Txileko Emakumearen eta Genero Ekitatearen Ministerioarekin gizonekin berdintasunaren aldeko lan espezifikoak egiteko sinatutako lankidetzaren memorandumen jarraipen-bilerak egin dira.

Era berean, Txileko Familien Fundazioarekiko lankidetzaren memorandumen esparruan, jarraipen-bilerak egin dira, eta Gizonduz ekimenaren *online* prestakuntzarako sarbidea eman zaie fundazio horretako langileei.

3.0

Programaren helburuen jarraipena eta ebaluazioa

2016ko abenduan **Gizonduz ekimenaren prozesuari buruzko ebaluazioa eta emaitzak (2007-2015)** argitaratu ziren, baita horiei zegokien betearazpen-laburpena ere.

Atal honetan jasotako taulan, Gizonduz ekimenaren helburuen jarraipen- eta ebaluazio-adierazle batzuek 2021era arte izandako bilakaera jasotzen da, eskuragarri dagoen informazioaren arabera.

Programaren lehenengo bi helburuei (1. *Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde sentzibilizatutako gizonen kopurua handitzea*; eta 2. *Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren esparruan trebakuntza duten gizonen kopurua handitzea*) dagozkien adierazleak emaitza-adierazleak dira, 1.5 adierazlea (*Berdintasuna garrantzitsua dela deritzoten gizonen egunekoa*) izan ezik, inpaktu-adierazlea baita hori. Emaitza-adierazleek Gizonduz programan garatutako jarduera nagusietako batzuen ondorioak neurtzen dituzte, eta komeni da argitzea taulan badirela daturik ez duten gelaxka batzuk, aztertutako urteetan martxan jarri ez ziren jardueri buruzkoak baitira.

1.5 adierazlea eta programaren azken helburuari (3. *Gizonek etxeko lanetan eta pertsonen zaintzan duten erantzunkidetasuna areagotzea*) dagozkion guztiak inpaktu-adierazleak dira, eta eragin nahi den gizarte-errealitatean izandako aldaketak neurtzen saiatzen dira. Ezin da jakin programak zehazki zenbaterainoko eragina izan duen haren bilakaeran (ziurrenik, eragin mugatua izango du); izan ere, programaren aukerak gainditzeko egiturazko faktore askoren arabera helburu bati lotutako gizarte-aldaketaren adierazleak dira. Hala ere, programak helburu hori lortzen lagundu nahi du, eta horregatik jaso dira taulan.

Bestalde, inpaktu-adierazleetan jasotzen diren datu gehienak urteko aldizkakotasuna ez duten estatistika edo azterlanetatik datoz. Horregatik, beti ez datoz bat adierazitako urtearekin. Taulan jasotzen diren datuak aipatutako urte bakoitzean eskuragarri zeudenak dira.


1. Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde sentsibilizatutako gizonen kopurua handitzea.	2007	2010	2015	2021
1.1 Gizonduz programako sentsibilizazio-ikastaro batean parte hartu duten gizonen kopurua (10 ordura arte).	-	1.066	4.297	7.124
1.2 “Gazteak Berdintasunean 2.0” programan parte hartu duten gizonezko ikasleen kopurua.	-	-	-	1.786
1.3 “EAEko gizonen eskutitza, berdintasunaren alde eta emakumeenganako indarkeriaren aurka” delakoa sinatu duten gizonen kopurua. ⁶	-	10.230	10.289	10.381
1.4. “Gizonok esan eta egin” kanpainaren esparruan konpromiso pertsonalak sinatu dituzten gizonen kopurua.	-	-	-	257
1.5 Berdintasuna garrantzitsua den ideiarekin ados edo oso ados dauden gizonen ehunekoa. ⁷	% 77	% 77	% 91	% 99
2. Gizon gehiago prestatzea emakumeen eta gizonen berdintasunaren esparruan.	2007	2010	2015	2021
2.2 Gizonduz ekimenaren esparruan aurrez aurreko edo <i>online</i> prestakuntza-ikastaro espezifiko batean parte hartu duten gizonen kopurua (10 ordu edo gehiagokoak edo aprobetxamendu-testa duten 8 ordukoak).	-	34	1.096	4.256
2.3 Gizonduz programaren sentsibilizazio-eta prestakuntza-ikastaroak bizitza pertsonalerako baliagarritzat jotzen dituzten gizonen ehunekoa.	-	% 96,80	% 94,65	% 97,75
2.4 Gizonduz programaren sentsibilizazio-eta prestakuntza-ikastaroak bizitza profesionalerako baliagarritzat jotzen dituzten gizonen ehunekoa.	-	% 86,60	% 89,75	% 96

⁶ 2010etik aurrera ez da sinadurak biltzeko ekintza publikorik egiten.

⁷ Iturria: Eusko Jaurlaritzako Lehendakartzaren Prospekzio Soziologikoen Kabinetea.

3. Gizonek etxeko lanetan eta pertsonen zaintzan duten erantzunkidetasuna areagotzea.	2007	2010	2015	2021
3.1 Gizonek etxeko lanetarako eta zaintza-lanetarako egunean batez beste emandako denbora. ⁸	-	4 h. et 6 min.	4 h. eta 30 min.	4 h. eta 48 min.
3.2 EAEn gizonek egindako zaintza-lanen eta etxeko lanen ehunekoa. ⁹	% 28,6	% 28,6	% 33,3	% 32,8
3.3. Gizonen ehunekoa, ahaideak zaintzeko eszedentzia baliatzen duten pertsona guztien barnean. ¹⁰	% 21,1	% 21,9	% 17,8	% 17,9
3.4. Gizonen ehunekoa, seme-alabak zaintzeko eszedentzia baliatzen duten pertsona guztien barnean. ¹¹	% 5,2	% 4,7	% 6,7	% 10,4

Azkenik, jarraian, grafiko bat dago, Gizonduz programaren sentsibilizazio- eta prestakuntza-ikas-taroretan parte hartu duten gizonen kopuruaren aurrerapena jasotzen duena.



⁸ Iturria: Lana, familia eta norberaren bizitza bateratzeari buruzko inkesta. Eustat. 2020.

⁹ Iturria: Etxeko lanari buruzko kontu-satelitea. Eustat. 2020.

¹⁰ Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren estatistika. 2020.

¹¹ Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren estatistika. 2020.



Manuel Iradier, 36
01005 Vitoria-Gasteiz
945 01 67 00
emakunde.gizonduz@euskadi.eus